

# 25 urtez euskal komunikazioaren elkargune eta ispilu

Duela mende laurden, helburu xume batekin hasi ziren egun euskal komunikazioaren erreferentziatzko sari direnok ematen: euskararen inguruko eragileen elkargune izatea.

| URKO APAOLAZA AVILA |

1989AN EUSKARAZKO EGUNKARI baten beharra gero eta nabarmenagoa zen, gero eta irmoagoa hori aurrera ateratzeko asmoa. Batetik, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zitzaion subentzio lerroa zabal zezala halako proiektuak laguntzeko, eta bestetik, euskal prentsak behar zuen babes lortzeko kanpaina ugari egin ziren.

ARGIAK bete-betean parte hartu zuen *Euskaldunon Egunkariaren* sorreran. 70eko hamarkada amaieran gaztelerari lehentasuna ematen zioten hainbat egunkari sortu ziren, eta ondorioz euskal aldizkari dekanoa krisi sakonean sartu zen. Hala ere, taldetxo txiki baten bultzadaz aurrera atera zen ARGIA –*Zeruko Argia* izateari utzita–, eta hori bakarrik ez, euskarazko egunkari bat sortzeko indarrak eta azpiegiturak metatu zituen. 80ko hamarkadaren amaieran Antza inprimategia sortzea izan zen giltzarrietako bat, baita informatikaren arloan urratsak ematea ere.

Hala, 1989ra animoz gogo berri-tuta iritsi zen euskal kazetaritza, sektorearen bazterretik ateratzeko gai zela sinetsita. Testuinguru horretan eman ziren lehenengo Argia Sariak.

## Argia Eguna eta Argia Sariak

Urte hartako azaroan, zenbait euskal aldizkaritako ordezkariak Donostian egindako agerraldian, ordura arte urtero egiten zen Argia Egunari “Euskal Prentsaren Eguna” leloa gehituko ziotela iragarri zuten. Egun hura aitzaki hartuta, euskal kazetaritzaren inguruan hitzaldiak, mahai inguruak eta sinadura bilketa antolatu zituzten, baita lehenengo Argia Euskal Prentsaren Sariak ere.

Argia Eguna 1982an sortu zen. Euskal Herriko txoko askotan jarritako mahaietan ARGIAren aleak eta



Goitik behera, ezker-eskuin: *Eguna* egunkarian jardundako Iñaki Eizmendi *Basarik* Argia Saria etxean jaso zuen 1989an. Julian Beloki –Iñaki Elorzaren izenean jaso zuen saria–, Martxelo Otamendi, Karlos Olabariaga eta Alberto Barandiaran 1992ko sariak eskuetan; mimoak 1991ko edizioan; Lutxi Zaldua ARGIAko harpidedunen izenean, 1960ko azala daraman sari berezia jasotzen 2001ean; Olatz Korta eta Mikel Garikoitz Errezola ekitaldia giroten 1999an.

beste hainbat produktu saltzen ziren egun horretan, aldarrikapen giroan; ahalik eta euskaltzale gehienengana hurbiltzea zen asmoa. Argia Sariak, berriz, euskal komunikazioaren eragileak elkartzeko egin ziren, modu zehatzagoan.

Ekitaldien antolaketan arreta osoa jartzearen, langileek erabaki zuten aurreko asteko zenbakirik ez ateratzea. Baina egoera politikoak dena nahasi zuen enegarren aldiz. 1989ko azaroaren 20an Josu Muguruza HBko parlamentaria eta kazetaria hil

# Argia Saridunak

## 1989

Prensa idatzia: Martin Ugalde  
Irratia: Luzien Etxezaharreta  
Telebista: Mikel Olazabal  
Aipamen berezia: Euskalerrria irratia  
Merezimenduzkoa: Eguna  
Sari postumoa: Josu Muguruza

## 1990

Prensa idatzia: Joxean Agirre  
Irratia: Goizean behin  
Telebista: Maddalen Iriarte  
Merezimenduzkoa: Emile Larre

## 1991

Prensa idatzia: Bertsolari  
Irratia: Antzoki iluna  
Telebista: Bi eta bat  
Merezimenduzkoa: Euskaldunon  
Egunkaria; Xorroxin eta Euskalerrria irratia

## 1992

Prensa idatzia: Nafarkaria  
Irratia: Iñaki Elortza  
Telebista: Egonean giro  
Merezimenduzkoa: Kili-kili

## 1993

Prensa idatzia: Antton Olariaga  
Irratia: Laxaro Azkune  
Telebista: Balinda  
Merezimenduzkoa: Lagun Aro

## 1994

Prensa idatzia: Elhuyar  
Irratia: Irulegi-Xiberoko botza  
Telebista: Sustraira  
Publizitatea: La Casa del Café  
Merezimenduzkoa: Miren Jone  
Azurtza, Antonio Iturria eta Agustín Ezeiza (ARGIAK 75 urte).  
Oroigarri berezia: Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza (75 urte)

## 1995

Prensa idatzia: Ttipi Ttapa  
Irratia: Pello Zabala  
Telebista: Txiskola  
Publizitatea: Koldo Izagirre  
Merezimenduzkoa: Kontxu Odriozola

eta Jox Berasategi "Txapas"  
(Goenkale); AEK

## 1996

Prensa idatzia: KZ  
Irratia: Olatz Zugasti  
Telebista: Arrasate Telebista  
Publizitatea: Zinkunegi optika  
Merezimenduzkoa: Berria  
Ikur berezia: Martin Ugalde

## 1998\*

Prensa idatzia: Luma  
Irratia: Xabier Usabiaga  
Telebista: Bertatik Bertara  
Publizitatea: Erice Autoeskola  
Merezimenduzkoa: IZ

## 1999

Prensa idatzia: Alberto Barandiaran  
Irratia: Bizkaia Irratia  
Telebista: Hitzetik Hortzera  
Publizitatea: ETB  
Sareko Argia: Kaixo.com  
Merezimenduzkoa: Senideak

## 2000

Prensa idatzia: Aizu!  
Irratia: Bilbo Hiria  
Telebista: Jose Ramon Soroz  
Publizitatea: Euskaltel  
Sareko Argia: Eibartarrak  
Merezimenduzkoa: Gara eta Zabalik

## 2001

Prensa idatzia: Hemaniko Kronika  
Irratia: Metropoli Forala  
Telebista: Bihar ere argituko dik, Felix!  
Publizitatea: BFAko Turismo Saila  
Sareko Argia: Irratia.com  
Merezimenduzkoa: Aralar, Esan-Erran eta Beleixe irratia  
Sari Berezia: Harpidedunak

## 2002

Prensa idatzia: Goienkaria  
Irratia: Pantzo Hirigarai  
Telebista: Angel Alkain  
Publizitatea: BBK  
Sareko Argia: Zientzia.net  
Merezimenduzkoa: Bertsozale Elkarte

## 2003

Prensa idatzia: Nabarra  
Irratia: Lauretan Babel  
Telebista: Lau Haizetara  
Publizitatea: Publis  
Sareko Argia: Sustatu  
Merezimenduzkoa: Herri Irratia

## 2004

Prensa idatzia: Berriako nazioarte saila  
Irratia: Aritz Agirre  
Telebista: Iban Garate  
Sareko Argia: Susa  
Merezimenduzkoa: Berria

## 2005

Prensa idatzia: Iñigo Aranbarri  
Irratia: Mikel Bujanda  
Telebista: Julian lantzi  
Sareko Argia: Uztarria.com  
Merezimenduzkoa: Gorringo taldea

## 2006

Prensa idatzia: Fermin Etxegoien  
Irratia: Maite Artola  
Telebista: Postdata  
Publizitatea: Bertsozale Elkarte  
Sareko Argia: Gaztesarea.net  
Merezimenduzkoa: Hik Hasi

## 2007

Prensa idatzia: Felix Ibartutxi  
Irratia: Jojo Bidart  
Telebista: Wazemank  
Publizitatea: Oarsaldeko Euskara Batzordea  
Sareko Argia: IKTeroak  
Merezimenduzkoa: Aizu!

## 2008

Prensa idatzia: Imanol Murua Uria  
Irratia: Arratsaldekoa  
Telebista: Mihiluze  
Publizitatea: EJKo Kultura Saila  
Internet: Euskarazko Wikipedia  
Merezimenduzkoa: Emilio Lopez Adan "Beltza"

## 2009

Prensa idatzia: Patxi Huarte "Zaldi-Eroa"  
Irratia: Joseba Barandiaran  
Telebista: Gure Saltsan  
Publizitatea: Usurbilgo Udala  
Internet: Librezalet  
Merezimenduzkoa: Mikel Atxaga

## 2010

Prensa idatzia: Itxaro Borda  
Irratia: Agin Rezola  
Telebista: Eriz Zapirain  
Publizitatea: AEK  
Internet: Grebaorokorra.info  
Merezimenduzkoa: Txirri, Mirri eta Txiribiton

## 2011

Prensa idatzia: Gaztezulo  
Irratia: Ekaitz Perfektua  
Telebista: Orain  
Publizitatea: Donostiako Udala  
Internet: Ahotsak.com

## 2012

Prensa idatzia: Karlos Zurutuza  
Irratia: Gure Bazterrak  
Telebista: Kanaldude  
Publizitatea: Klikmetroak  
Internet: EITB Nahieran  
Merezimenduzkoa: Txillardegia (senideek jaso zuten haren orde)

## 2013

Prensa idatzia: Edu Lartzaguren  
Irratia: Portobello  
Telebista: Kanaldude  
Publizitatea: Herrira  
Internet: Dantzan.com; Bertsoa.com  
Merezimenduzkoa: Euskadi Irratia

## 2014

Prensa idatzia: Maite Asensio Lozano  
Irratia: Eider Olazar Elduaien  
Telebista: Tribuaren Berbak  
Publizitatea: ErriGora  
Internet: Topatu.info

\*1997ko edizioa 1998ra igaro zen; azaroan beharrean urtarrean banatzen dira urte horretatik aurrera Argia Sariak.

zuten gerra zikinari loturiko atentatua. ARGIAK ale berezia kaleratu zuen, bere kolaboratzaile zenaren hilketa salatuz. Egun batzuk geroago, Lasarte-Oriako Txartel Txokon egin zen estrainezko sari banaketa; Mugaruzari sari postumoa eman zioten.

1990ean *Euskaldunon Egunkaria* sortu zelarik, ARGIAKO erredakzioa mehartuta geratu zen halabarrez. Astekariak, euskal prentsaren munduan bere burua berriz birkokatu

behar izan zuen, baita lortu ere, eta Argia Sariak dira horren erakusgarri.

Urtetik urtera sona handiagoa hartu zuten sariek. Elkarte gastronomikotik, Txitxardin Beltza jatetxera igaro zen ekitaldia eta musika emanaldiz hornitu. 1999an Sareko Argia saria banatzen hasi ziren; ez kasualitatez. Bi urte lehenago sortu zuen astekariak webgunea, *Ttipi-Ttaparen* bideari jarraiki eta erdarazko medio askoren aurretik.

Azken urteetan bideogintzak garrantzi handia hartu du ARGIAKO edukietan, baita sarietan ere. Ekitaldirako berez sorturiko bideoak eta streamingak egin dira, esaterako. Hain justu, artikulua hau ilustratzeko erabili ditugun argazkiekin eta beste askorekin, Argia Sarien ibilbidea laburbiltzen duen bideoa ikusgai dago gure webgunean. ■

